

SEGMENTAZIOA

Gure aplikazioa deskargatzen duen jendeak helburu bat izango du: mentalki txarto sentitzen den jendea eta psikologo batera edo arazo hori konpontzeko baliabideak ez dutenek, laguntza eskuratzea.

Pazienteak hainbat ataletan sailkatuko ditugu:

- Arazoen arabera banatuko dugu merkatua, azken finean arazo bakoitza arreta desberdinak jaso behar dute, eta arazo bakoitzerako psikologo espezializatu bat esleituko da.
- Hasiera batean, gure pazienteen arazoak nibeletan sailkatzea erabaki genuen baina ohartu ginen nahi gabe besteen arazoa gutxietsi egiten genuela, eta honek ondorio negatiboak ekarri ahal zutela gure pazienteentzat. Azken finean, pertsona guztiek dute, gure partez, arreta berdina jasotzeko eskubidea nahiz eta nibel desberdinak izan.

Gure pazienteak sailkatzeko, esan dugun moduan, ze arazo mental duen jakin behar dugu, horretarako hainbat gauza egin beharko dute erantzun honetara heltzeko.

Lehenengo eta behin, pazienteak gure aplikazioa lehenengo aldiz zabaltzen duenean, pazientearen informazioa eskatzen den fitxa agertuko zaio. Honetan hainbat datu eskuratuko ditugu (izena, adina, bizilekua...), baina hortaz aparte, zelan sentitzen den eta zer gertatzen zaion azalduko du, hau da, zein egoeratan sentitzen den txarto, edo txarto sentitzen denengan zer pentsatzen duen.

Hori gutxi balitz, psikologo batekin hitz egiteko aukera izango du, honekin jakin ahalko dugu hasiera baten, zein motatako arazo duen. Psikologoekin batzarrak aurrera joan ahala, bideratu ahalko dugu gure pazienteari diagnostiko zehatz batera, azken finean batzar bakarrarekin ezin izango dugu jakin zehazki zein motatako arazoa duen. Eta honela sailkatuko genuke